

**PIERRE BROUSSAINEN FONDOA HARTZEAN**



## PIERRE BROUSSAINEN FONDOA HARTZEAN

*Egoitza, 1993.10.29*

*Piarres Charritton*

Ez naiz hasiko hitzaldi luze baten egiten: Atzo, Pierre Broussain ez baldin bagenekien nor zen xuxen —nik hasteko ez nekien bazenik ere, nahiz haren sorterrian sortua nintzen, Hazparnen, hura hil ondoko urtean—, gaurregun ordea ez dut uste, etxe honetan, merezi duen xehetasunetan sartzea oroitarazteko 1859an sortu zela Piarres Broussain, gero 6-7 urtetan, etxetik joan zela eskolara, Larresorora, ama alarguna berriz ezkondu zitzaielarik. Baionako komandante erdaldun batekin. Ondotik eskolak segitu zituen Akizen, Bordelen, eta 20 bat urtez bederen Parisen, eta azkenean, medikuntza doktorgoa iraganik sorterrira itzuli zen, sendagile bezala, han lanegiteko. Bost urteen buruko ordea bere herritarrek auzapez hautatu zuten eta 15 urtez Hazparneko auzapez egon zen, hasik hil arte: auzapez eta ere gerla ondoan kontseilari jeneral. Heriotzeak Ortheseko hirian atzeman zuen 1920eko apirilean, Pabeko biltzarretik lekora, etxera heldu zelarik eta Hazparnen ehortzi zuten ordukotz jauneria egin ohi zen bezala, mintzaldi guziaz frantsesez, hitz bakar bat euskaraz eman gabe.

Protesta adierazi zuen halere, zenbait egun geroago, Martin Landerretxe apez euskaltzainak, erranez ez zela eskubiderik Piarres Broussain joaitera uzteko agertu gabe zein izan ziren haren bi ideia nagusiak: Lehena, euskarak nahi baldin bazuen irauin, behar zuela baitezpada bateratu edo bakundu. Bigarrena euskarak nahi baldin bazuen irauin behar zela euskara hori eskoletan sartu. Geroxeago berriz mintzatu zen ere Jean Etchepare, mediku adiskidea, berak zekien bezala, zehatz eta mehatz: (ikus P. Charritton, *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak* I. Elkar, 1984, 183. orr..), baina geroztik ixiltasun handi batek estali zuen Broussainen orotzapena.

50 bat urteen buruan halere, hazpandar gazte zenbait, Jean Louis Davant Hazparneko irakasle euskaltzaina tartean zutela, oroitu ziren. Hazparne Barrandegiko seme bat izan zela mende honen lehen partean bere herriko auzapez; ez ordea bakarrik herriko auzapez, euskalzale handi ere bai eta Resurreccion Maria Azkue bere adixkide minarekin batean, Euskaltzaindiaren sortzaile. Gehiago oraino gaur erran genezake, Broussain-Campion txosten famatua berrirakurri ondoan, Broussain-ek berak ziola hil aintzin elkarte berriari aurkeztu, XX. mende honen azkenerako nonbait hor Euskaltzaindiak beteko duen premiazko egitasmoa, euskara batuaren egituratzea eta eskoletan sartzea.

Horra nola Hazparneko gazteriarri gogoratu zitzaion omenaldi baten egitea Piarres Broussain zenari eta nola andere Jenofa Broussain-Leroy, omenduaren alaba gomit izanez, haren ganik jakin genuen Lehuntzeko bere etxean gorderik bazeuzkala bizpahiru kutxa, aita zenaren paperez beterik. Paper horien ikertzen hasi nintzen beraz jabearen baimenarekin, eta Bordeleko irakasle genuen Jean Haritschelhar gaurko euskaltzainburuaren gidaritzapean osatu ahal izan nuen, Pierre Broussain zenaren bizia eta obra aurkezten zuen tesia. Jacques Allières irakasleari esker C.N.R.S. (Centre National de la Recherche Scientifique) delakoak argitaratu zidan ene lana frantsesez (1985), baina zorigaitzez euskaraz egin-gei daukat oraino.

Dena dela, aita Villasante-ri zor diot, Euskaltzaindiak berak, bere IKER sailaren 4. liburukia eskaini baitio, R.M. Azkuek eta P. Broussainek utzi dizkiguten eskuizkribuei esker berrantolatatu ahal izan dudan elkarridazketa (1986). Lan horientzat erabili ditudan paperak oro, Euskaltzaindiaren egoitzako bibliotekan aurkitzen dira beraz gaurdanik, Andere Maider Clément de Courson-ek horrela konplitu nahi izan baitu egun, Andere Jenofa Broussain Leroy bere ama zenak adierazia zion xedea.

Toki berean aurkituko dira oraidanik Sabino Arana Goiri-ren obren bigarren edizioan Piarres Lafitten sinadurarekin nihonek sartu nituen Broussainekilako gutunak, bai eta ere Baionako *Bulletin du Musée Basque* aldizkarian argitaratu ditudan Georges Lacombe-nak (15) edo Albert Constantin-enak (17). Baina badaude ere argitaratu gabeko beste frango, adibidez Manex Hiriart Urruty-ren 30 gutun, Mokozain apezaren 15, Arbelbide kalonjearen 10, eta beste 40 bat bederen. Estanislao de Aranzadi, Julio de Urquijo, J.B. Daranatz, J.B. Darricarrère, Arturo Campion, Koldo Eleizalde, Martin Guilbeau, Jean Etchepare, Gratien Istilart edo F. de Saint-Jayme sinadura dutenak.

Zehaztu nahi nuke bestalde gure mende honen hastapeneko gertakari nagusi bat edo beste argitzeko lagungarri dituzketela ikerleek hemen izanen diren Broussainen eskuizkribu zenbait, hala nola Euskalzaleen biltzarraren sorreran gertatuak, (1900-1903), Frantziako Gobernuak euskarazko dotrina edo katiximaren aurka egin erasoari euskaldun batzuek eman erantzuna (1902-1905) edo 1911ean bere euskal kantu bilketa Iparraldean zeramalarik, Azkuek berak "euskaldun frantses frantsestiar" batzuekin izan zituen liskarrak.

Dena dela, ez baldin badugu ere oraino nehon aurkitu ez Bilbon ez Lehentzan Azkuek bere *Hiztegi* handian "Manuscrit de Hasparren" deitzen duen Broussain-en eskuizkribua, lan horren prestatzeko baliatzen zituen paper muttur asko hor daukagu orain, jaun mediku zenak berak bildu zituen bezala.

Aitor dezagun oraino Piarres Broussain-en sendiak berak begiratu dituela etxekoen edo adixkideen arteko zenbait gutun, zuzen eta egoki den bezala, eta Hazparneko udal artxibategirat joan direla Hazparne herriak 15 urtez bere gidari izan duen auzapezak erabili urrats batzuen lekukotasunak dela hauteskunde, dela arraindegi, dela oihanestatze, dela gerlako oroitarri. Azken hitza izanen da, milesker handi bat erraiteko Andere de Courson eta Broussain sendiari, nihauri ene ikerketentzat eman erraztasun guzientzat, eta Euskal Herriko historiaren biharko ikerleei hemen eskaintzen dieten altxor ederrarentzat.

## PIERRE BROUSSAINEN FONDOA JASOTZEAN

*Egoitza, 1993.10.29*

*Jose Antonio Arana Martija*

Madame Mairer de Courson anderea,  
Mahaikideok,  
Euskaltzainok,  
Entzule guztioi, eguerdion.

Broussainez ezer ez zekiela esan du Piarres Charritton euskaltzainak orain-  
txe, baina badirudi gero ikasi duela zerbait baino gehiago. Esandakoetatik aparte,  
nik aipatu nahi nituzke hemen baliagarri izan ditudan Charrittonen hiru lan  
hauek: "Piarres Broussainen paperak", *Euskera* gure agerkarian 1978an eman zi-  
gun lana (1), *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques* tesia, Parisen  
CNRS-k 1985ean argitaratua, eta *Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*, Euskaltzaindiak *Iker* bilduman, 4. zenbakiarekin  
1986an kaleratua.

Pierre Broussain hil zenean, 1920.eko apirilaren 27an, Ameli Baratxart alar-  
gunak Baionako bere etxera ekarri zituen 1934ean zenduaren paper guztiak. Pie-  
rre eta Ameli gurasoen alaba zen Jenofa Broussain andereak, ama 1962an hil zi-  
tzaionean, Lehuntza Nagileko bere etxera ekarri zituen paper guzti horiek.

Jenofa Broussain, gure euskaltzainaren alaba hori, Clément jaunarekin ez-  
kondu zen eta bi seme-alaba izan zituen: Miguel Clément Broussain, 1978an hil  
zena, eta gaur hemen gure artean daukagun eta omentzen dugun Mairer Clé-  
ment Broussain anderea, 1979 urtean hil zitzaion de Courson jaunarekin ezkon-  
dua. De Courson / Clément gurasoengandik jaiotako alabaren ezkontza ospatzen  
zirelarik, itsumustuan hil zen 1987an Jenofa Broussain anderea.

Hil pare bat lehenago, 1987.eko apirilaren 8an, Erribera kaleko Azkue Bi-  
bliotekan izan genuen Jenofa anderearen bisita, Charrittonekin etorria. Opari gisa  
liburu batzuk eman genizkion, eta bertan adierazi zigun aipatu aitaren paperak  
Euskaltzaindiaren artxiborako utzi nahi zituela. Baina denbora gutxi barru eta ta-  
malez hil zenez, gauzatu gabe geratu zen ondare honen emaitza.

Esan dezagun ordurako Clément senarra zendua zela eta Jenofa anderea Le  
Roy jaunarekin berriz ezkondata zegoela. Alargun geratu zen jaun honek eta

---

(1) Lan hau 1978.08.25ean irakurri zuen eta *Euskeran* argitaratu, 1979, 167-170. orr.

Maidereak erabaki zuten Jenofa emaztea eta amaren borondatea errespetatzea, eta gaur da guretzat egun aipagarria zeinetan Broussainen fondoa jasotzen dugun.

Aspaldidanik arakatu zituen Charritton jaunak paper guzti hauek, eta tesian esaten digunez, senitarteko eta adiskideen gutunak zeuden orduan kaiza batetan. Orduko euskalarien gutunak ere han zeuden, hala nola: Azkue, Hiriart-Urruty, Constantin, Lacombe, Arbeldide, eta beste batzuenak. Dakidanetik, oso baliotsua dela ondare hau iruditzen zait, zeren artxibo batetan halako gutunak izateak, *bi-degileen* biografiak, euskararekiko joerak eta iritziak aztertzeke ezinbesteko laguntza ematen baitio ikertzaileari. Iparraldeko euskalarien mundu hori hobeto eza-gutzeko beste ildo bat zabaltzen digu emaitza honek. Orain, erabilgarria izan dadin, ondare honen katalogoa prestatu beharko dugu Azkue Bibliotekan, eta zinez esaten dizuet pozik eta maitekiro paratuko dugula.

Eskerrak berriz emateak ez dio kalterik sortuko Maidere de Courson anderea-ri eta Erakundearen bibliotekaria naizenetik, bereziki dagokit jasotzen dudana emaitzarenatik eskerririk beroenak ematea. Eta eskerron hau denen gogokoa izango delakoan, txaloekin Broussainen ilobari adieraztea eskertuko nizueke.

**PIERRE BROUSSAIN-EN ARTXIBOTIK JASOTAKO  
DOKUMENTUAK**

**Gutundegia**

Nork idatzia	Data	Zenb.
1. ABBADIE, E.	1911. 9.21	1
2. ADEMA, Blaise	1919. 1. 6	1
3. ADEMA, Gratien "Zaldubi"	1901. 7.15	1
4. ANONIMO - Mera jaunari	d.g.	1
5. ANZOLA, J.	1902. 7. 4	1
6. ARANA GOIRI, Sabino	1901.12. 4/1902. 1.23	5
7. ARANZADI, Estanislao	1901.10.30/1903. 1.27	4
8. ARBELBIDE, Jean Pierre	1891. 5. 6/1904. 4.25	10
9. AZKUE, Resurrección María	1899. 8. 9/1919. 6. 3	75
10. BEHERAN, Jeanne Marie	1891. 2.10	1
11. BROUSSAIN, Pierre - GUICHERME, Marie-ri	1913. 5.22	1
12. BROUSSAIN, Pierre - WINKLER, Henrich-i	d.g.	1
13. CONSTANTIN, Jean Baptiste	1899.12.12/1919. 5.22	17
14. DARANATZ, Jean Baptiste	1899.11.17/1919. 3.12	8
15. DARRICARRERE, Jean Baptiste	1900. 1. 8/1902. 1.17	5
16. DOURISBOURE, Alexis	1903. 3.21	1
17. ELEIZALDE, Luis	1916.10.14/1919. 9.10	2
18. ELISSAGARAY, Renaud d'	1903. 1.15/1903. 1.19	2
19. ETCHEVERRY, Louis	1903. 3.30	1
20. ETCHEVERRY, Mathieu	1908. 8. 3/1908. 7.23	2
21. ETCHEGOYEN, Sauveur	1894.10.28	1
22. ETCHEPARE, Jean	1901.11.12/1905.10. 1	4
23. ETCHEPARE, Pierre	1905.10. 1	1
24. GARMENDIA, German	1918. 5.11	1
25. GAVEL, Henri	1913. 7. 5/1916.11.23	2
26. GODIN	1891	1
27. GRAGIRENA, Manuel	1914. 2. 4	1
28. GUILBEAU, Martin	1895. 8.27/1902. 1. 9	4
29. HALSOUET - Ezpeletako auzapeza	1903. 4.23	1
30. HAPET, Clément	1903. 3.26	1
31. HARISTOY, Pierre	1899.11.13	1
32. HARREGUY, Bernardin	1916. 8.12	1
33. HIRIART URRUTY, Jean	1894. 7.15/1906. 1.23	30
34. ISTILART, Gratien	1910. 6.24/1920. 6.14	6

Nork idatzia	Data	Zenb.
35. JUVENAL, Fray	1901. 8.28	1
36. LACOMBE, George	1903. 8. 8/1921. 2.27	14
37. LAFOURCADE - Bastidako auzapeza	1903.12. 4	1
38. LARRIEU, Amédée	1916. 6.17/1916. 8.17	3
39. LARRIEU, Dr. J. Felix	1899.10.29/1901.12. 9	3
40. LORDA, Jean	1891. 2.10/1891. 3.12	2
41. MENDIONDO, Dr.	1903. 3.28/1903. 4. 6	2
42. MOCOÇAIN, Dominique	1892. 2.19/1905, 9.13	14
43. MOKOROA, Baleriano	1899. 7. 3	1
44. MOUGICA, Jean	1916. 7.19	1
45. MUGICA, Gregorio	1913. 7.10	3
46. POCHELOU, Arnaud	1894. 9.23/1894.12.29	4
47. RITOU, Etienne	1903. 3.26	1
48. SABALOU, Gracieuse	1905. 6.22/1916.11. 7	7
49. SAINT JAYME, Frédéric	1903. 3. 4/1919. 9. 8	9
50. TELLETCHÉA, Jean Baptiste	1916.10.21	1
51. UGARTE, M. - Larraïdy doktoareari	1900. 9. 5	1
52. URQUIJO, Julio	1919. 1. 7	1
53. WEBSTER, Wentworth - HARISTOY, Pierre-ri	1896. 5. 7/1898. 3.18	3
54. WEBSTER, Wentworth - NICHOLS, H.S.-rena	1898. 3.16	1
55. IDENTIFIKATU GABE	1898. 4.23-1903. 3.18	2

### Eskuizkribuak

#### 56. BERTSOAK

1. Azparreco carrican celhaitic sartçian
2. Banoa loaren hartzerat, Jesus zure izenean
3. Cantaxérat niasu omoré onian
4. Carlisten desira zen
5. Cusi maite charmanta (Anna Diharce)
6. Irusci deman soinden
7. Maitia gaste cira eder eta fresco
8. Iruñaco ferietan juan den San Ferminetan (Otxalde)
9. Oy nere amantea
10. Oi uda lili polita
11. Oi uda lili polita
12. Yakin zazu nic erranic Dr. Broussain yaun handia

#### 57. BROUSSAIN, Pierre

1. Agenda helbideekin
2. Agenda etxe izenekin
3. Bi agenda hitzekin

#### 58. BROUSSAIN, Pierre

Azparne'ko kantonamenduko boz emaileer (1905).—2 orr.



59. BROUSSAIN, Pierre  
Bertso tituluekin zerrenda.—orr. 1
60. BROUSSAIN, Pierre  
Hiztegitza.—38 orr.
61. BROUSSAIN, Pierre  
J'ren otsa eta ortografia.—3 orr.
62. BROUSSAIN, Pierre  
(Kontseilu Jeneraleko boz emaileer) (1910).—2 orr.
63. BROUSSAIN, Pierre  
Projet de formation d'une Association ou Ligue pour la conservation de la langue basque (1902).—10 orr.
64. ELISSAMBURU, Jean Baptiste  
Zapataina edo gizon zuhurra
65. MENDIGACHA, Mariano  
Gayazko ulun eta issitarrunaz eguin itz.—orr. 1
66. EUSKALTZAINDIA  
Irugarren Txostena (1920).—3 orr.

### Argitalpenak

67. *A Monsieur le Préfet des Basses-Pyrénées.*  
t.g.: i.g., 1903.—orr. 1
68. ARTOLA, Jose  
*Aur Kantona*  
t.g.: i.g., d.g.—orr. 1
69. *BAIGORRICO Laborari Confrariaco frantsesez Syndicat Agricole deitzen denaren Erreglamendua.*  
Bayonne: A. Lamoignon, 1892.—4 orr.
70. DARRICARRERE, Jean Baptiste  
*La langue basque et les idiomes arvens.*  
Barcelonnette: E. Bouguin, 1885.—31 orr.
71. DUCERE, E.  
*Documents pour servir a l'étude des patois gascons.*  
Bayonne: i.g., 1880.—15 orr.
72. *ELGAR-LAGUN Hazparneko Abere Konfrarioaren Erreglamendua.*  
Bayonne: A. Lamoignon, 1910.—8 orr.
73. EUSKAL ZALEEN BILTZARRA  
*Statuts.*  
Bayonne: A. Lamoignon, 1902.—7 orr.

74. EUSKAL-ZALEEN BILTZARRA  
*Congrès du 10 Septembre 1903* (Batzar-deia).  
Biarritz: A. Lamaignère, 1903.—orr. 1
75. ESKUAL-ZALEEN BILTZARRA  
(*Batzar-deia*) 10 Août 1903.  
(Bayonne): i.g., 1903.—orr. 1
76. EUZKO IKASKUNTZA  
*Araudia*.  
Tolosa: E. Lopez (1918).—4 orr.
77. EUZKO IKASKUNTZA / SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS  
*Reglamento*.  
t.g.: i.g. (1918).—4 orr.
78. EUZKO IKASKUNTZA  
(*Bazkuna irasteaz*).  
Gasteiz/Vitoria: Fuertes y Marquinez, 1919.—2 orr.
79. EUZKO IKASKUNTZA / SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES  
(*Oñatiko Biltzarraren ondorioak*)  
Saint-Sébastien: Martin, Mena et Cie., 1919.—2 orr.
80. EUZKO-İKASKUNTZA  
(*Bazkidetzaren txartela*).  
t.g.: i.g., 1919.—orr. 1
81. FEDERATION LITTÉRAIRE BASQUE  
*Congrès bascophile*.  
t.g.: i.g., 1901.—orr. 1
82. *FONDATION de Labastide-Clairence. Poème béarnais avec traduction française*.  
Pau: Vignancour, S. Dufau, 1894.—35 orr.
83. LARRIEU, Amédée  
*Rapport du Commissaire*.  
Bayonne: i.g. (1916).—orr. 1
84. PRENTSA mozkinak:  
1. AGRAIN, Henry: "L'épigramme d'Hasparren."  
2. Bayonne il y a 50 ans. 1916.  
3. Les basques et l'actualité du Caucase.  
4. En Sorbonne.  
5. Académie des sciences morales et politiques.  
6. Fête nationale et fêtes basques. 1901.
85. ZAPATAINDEGUI, Bégnat  
*Osquichiânerie*.  
Saint-Palais: Clèdes, d.g.—4 orr.

## PIERRE BROUSSAINEN FONDOA HARTZEAZ

1993.10.29

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Egun ederra da beti nonbaitetik ondare bat sartzen delarik Euskaltzaindian eta bereziki erakunde publiko batetarat sartzen delarik, erran nahi baita pribaturik publikora pasatzen delarik, zeren eta orduan gauzak hobeki ikusten ahal baitira eta, dudarik gabe, nire azken hitzak, hemen, esker onezko hitzak izanen dira. Zonbait emaiten ditut orain, jadanik Xarritonek eta Jose Antonio Aranak euskaraz eman baitituzte eta aurrean dudan andere horrek ez baitaki euskararik, beraz normalki frantsesez mintzatu natzaio.

\* \* \*

Madame, c'est à vous que je m'adresse maintenant.

Vous avez eu la chance d'avoir un grand-père célèbre, mais ainsi veut le monde que, de temps en temps, les célébrités s'émoussent et puis, tout d'un coup réapparaissent, et cela grâce à un concours de circonstances qui a été assez étonnant.

Je veux dire para là que votre grand-père, Pierre Broussain, a connu tous les honneurs: il a été maire de Hasparren, son village natal; il a été conseiller général; il a été un basquisant notoire, il a eu l'honneur d'appartenir aux douze premiers académiciens et je pense qu'il doit cet honneur à l'amitié très grande que lui vouait Azkue; si je ne commets pas d'erreur, c'est à partir de 1898 que se sont nouées ses relations avec Resurrección Maria de Azkue qui a été un géant en bascologie.

Mais les gens oublient vite; l'oubli est quelque chose qui, parfois, nous préserve du trop de mémoire mais, dans le cas actuel, je voudrais plus particulièrement souligner, parce qu'il a beaucoup parlé des autres, la part que Pierre Charritton a prise dans la resurreccion de Pierre Broussain. Certes, il a pu le faire parce que votre famille, en particulier votre mère, lui a ouvert toutes les portes et très grandes; qu'il a pu entrer dans ses archives privées et qu'à ce moment-là, il s'est retourné vers moi et m'a dit: "Voilà ce qu'il y a et je pense qu'il faudrait pouvoir faire une thèse avec ça"; évidemment, je l'ai encouragé, et cette thèse, il l'a très brillamment passée; elle a été publiée; il ne lui reste plus qu'à la publier en basque maintenant, puisqu'il s'y est engagé, de manière à ce que les Basques

qui ignorent le français puissent savoir aussi ce qui se dit de Broussain et qui a été Pierre Broussain.

\* \* \*

Et c'est là que votre mère s'est souvenue de son père, alors qu'elle n'avait que huit ans au moment où il est mort. Elle a retrouvé ce qui était l'âme même de son père. Il y avait dans ces archives privées ce que les historiens de demain ne trouveront peut-être pas car beaucoup de choses se font maintenant par téléphone et non point par écrit et c'est cette trace de l'écrit qui a permis à Pierre Charritton, non seulement d'évoquer une figure, mais de dresser la fresque d'une époque. Or, cette époque est particulièrement importante dans le développement de la conscience linguistique des Basques et je dirais, parallèlement, de la conscience politique des Basques. Mais si nous sommes ici aujourd'hui et si je m'adresse à vous, c'est parce que vous avez eu cet élan de générosité qui consiste à passer des archives privées vers des archives publiques et c'est un don que vous faites. C'est un don que vous faites à la société et en l'occurrence un don que vous faites à la société basque car, comme l'a dit Pierre Charritton, s'il y a un certain nombre de lettres qui ont été publiées, en particulier certaines dans le *Bulletin du Musée Basque*, d'autres effectivement dans un ouvrage que Euskaltzaindia lui-même a publié, c'est-à-dire *Iker 4*, il y en a encore d'autres qui n'ont pas été publiées et qui peuvent servir à compléter l'histoire de cette époque-là. Par conséquent, Madame, et au nom de Euskaltzaindia, je tiens à vous adresser les remerciements les plus sincères pour ce don généreux que vous faites à nos archives.

\* \* \*

Certes, vous les avez ouvertes déjà; certes, elles ont donné des fruits mais lorsque des archives se retrouvent dans un endroit public et dans une institution publique comme la bibliothèque et les archives de Euskaltzaindia, il ne fait aucun doute qu'un accès plus grand leur est donné et que, par conséquent, c'est véritablement une ouverture que vous faites avec ce don et avec cette générosité. C'est cela que je voulais souligner, Madame, en témoignage de cette journée qui, pour nous, est une grande journée parce que le patrimoine d'Euskaltzaindia s'augmente et qu'il s'augmente justement du legs ou du don de l'un des premiers euskaltzain de 1919; alors, en témoignage de reconnaissance, je voudrais vous offrir la médaille de l'Académie. Sur cette médaille de l'Académie, nous avons placé simplement ces quelques mots: "Pierre Broussain-en oroitzapenetan" (en souvenir de Pierre Broussain) et la date est du 29 octobre 1993, afin que cette date soit effectivement bien marquée.

*Siège/Egoitza, 29.10.94*

*Maidor de Courson*

Je voudrais vous dire mon profond regret de ne pas parler basque et Aitatxi ne méritait pas ça. Ama parlait basque; je ne suis pas du Pays Basque; mon père n'était pas basque et, malheureusement, je ne le parle pas mais je suis très très attachée à ce Pays Basque et je trouve que tous ces papiers d'Aitatxi se devaient d'être dans vos mains ici, à l'Académie, puisque nous ne le parlons pas et surtout parce que je pense qu'il a fait beaucoup pour sa langue basque et qu'il fallait absolument que tout cela soit ici, avec vous, et que tout le monde en profite, comme vous l'avez dit, Monsieur le Président.